

ETNO-TESTUEN BEHARRIZANA EUSKARAREN ETORKIZUNEAN

Juan Manuel ETXEBARRIA
Deustuko Unibertsitatea

SUMMARY

Until now written Basque has been far from gathering the essence of living Basque. Within the territory of this language as a whole, popular living Basque, which has been forgotten, is a very extensive, ancient subject. However, the Basque language is made up by written Basque and oral Basque. Written Basque, has already been preserved, more or less, in books, but oral Basque has become poorer and poorer, generation after generation and continues to lose its bearings.

Today, the orientation is towards unified Basque and that seems to be the means to survival for this language, but that should not entail the scrapping of popular, living Basque and all its wealth.

RESUME

Jusqu'ici le basque écrit a été loin de recueillir l'essence du basque vivant. Sur l'ensemble du territoire de la langue, c'est tout un livre, ancien et riche, le basque vivant et populaire, qui a été oublié. Or c'est le basque écrit et le basque oral qui constituent la langue basque. L'écrit, peu ou prou, est déjà conservé dans les livres mais l'oral court appauvri de génération en génération.

Aujourd'hui, on s'oriente vers le basque unifié et cela paraît être le moyen de survie du basque, mais cela ne devrait pas entraîner la mise au rebut du basque populaire vivant ni de toutes ses richesses.

Idazti arkaikoenetik hasi eta orain arterainoko han hor hemengo euskara idatziak ez du jaso belaunaldiz belaunaldi euskal gizarteak bere galbahetik eralgitako euskara biziaren izate osoa.

Euskal Herriaren luze-zabaleko haronakoan, bada izan ere ahaztu behar ezeko liburu zahar baina aberats bat, herriaren euskara biziarena hain zuzen.

Euskal hizkuntza, idatziak eta ahozkoak osatzen dute. Idatzia zelan edo halan, liburuetan gorde zaigu baina ahozkoa hor dabil, belaunaldiz belaunaldi urritzen eta sarri askotan nora ezean.

Urteak aurrera doaz eta euskara bizi horren lekukoak zahartzen dabilzki-gu. Neurriak tertzioz hartzen ez badira eta denodu guztiaz zaintzen ez badugu hori altxor hori, arduragabekeriakzko ilunde zuritu-ezineko bat sortuko dugu gure euskararen historian.

Dialektologiari daragoiogu baina zer egin dugu joan den aspaldian? Euskalki batzuk baztertu edozein preziotan eta batasunaren izenean euskara urritu aberastu beharrean. Esandako guztiaz euskara idatziari dariot baina ahozkerari buruz zer?. Mikel Zarateren alegiko "Idatz eta Mintz" bikiak banatu egin zituzten eta denok dakigu zer gertatu zen. Baina orain batasunak ez ote du "Berridatz" eratu, derrigortu eta ondorioz "Bermintz" sortu?. Zergatik ez gara gaurkook lehengo eta gerokoen arteko zubi eta ez lotura gabeko muga? Euskara batuaren "autobia" zergatik ez doa euskalki guztietatik eta batez ere, arrazoi askogatik, BIZKAIERAREN EDERRETIK?

Hizkuntzaren komunikabide prozesua psiko-fisiologikoa izanik, gizarte-ko alkar komunikazioan era askotako aldaketak sortu dira historian zehar hizkuntzaren ekonomia, eufonia eta transmisio ohitura bitarteko izan ditugarik.

Alor larri baina beharrezko honi heldu gura nioke oraingo honetan nire neure doktorego tesian aztertutakoa oinarritzat hartuz.

Herri-euskara, jatorrizko sistematik aldatuz edo urrunduz joan da hiztunen analfabetotasuna bitarteko, baina, hor dago, luzarorako ez bada ere, bizi bizirik eta aberats.

Gaur egun euskara baterantz joan nahi da eta horixe litzateke euskararen bizibidea, baina horretarako ezin dugu dagoen dagoeneko herri-euskara bizia gehiagokobarik baztertu, bizirik dituen edertasunak jaso eta erabili baino.

Hortxik bide horretatik joan gura nuke neure *Zeberio haraneko euskararen azterketa etno-linguistikoa*-ren haronakoa, etorkizuneko euskararen lagun eta argibide izan dadin bere batasunaren bidean.

Bide bat zelakoa den jakiteko, norbera bertatik ibilita egotealakorik ez dago, egur eskarmentadua sugin ona izaten bait da.

Komunikazio honetako nire aipamenak, a posteriori eginak dira eta argi izpi bezala, lehen aipatutako tesian azterturiko alor bakoitzetik distira batzuk botako dizkizuet etno-testuen balioa eta beharizana baieztatzeko.

Bokalismoa

Alor honetan, fonologia mailan jasotako etno-testuak eurak ere argigarri ditugu bokal-harmoniatik hasi eta beste hainbat aldaketan berri jasoteko.

Baina laborategi fonetikoak bitarteko ditugunez gero, alor honetako ikerketa zehatz batek ondorio ezin hobeak ekar litzake han hor hemengo triangelu bokaliko eta abarren berri jasoteko, egin ere oraindino lurralde gutxitan egin bait dira honelako ikerketak, eta jakina, ondorio orokorrak aterateko, aurretik lan partzial ugari egin behar da, toki konkretu bat edo batzuen ondorioak Euskal Herri osora hedatu nahi ez badira.

Euskaltzaindiak, alor honetako arauak emon egiten ditu, gogoratu “iritzi/eritzi”, “baten/batean” adibidez, baina horretarako aurretizik jakin behar da euskara idatzia eta zelan ez ahozkoaren berri eta gero ere zabal jokatu dogmatismo barik, azken baten hizkuntza baten norma darabilenak egiten du historiaren joan etorrian.

Diptongazioa

Euskara idatziari buruzko diptongoen sailkapena ezaguna da arean aditua den batentzat, baina ahozkeraren munduan sartzen garen neurrian zabaldu egiten da mundu hori.

Berbaz gaudenean, idatziaren hitzez hitzeko banaketak ez du balio, multzo fonikoa bait da nagusi. Era horretara, multzo fonikoetan ekonomia, eufonia eta transmisio ohitura faktoreak datozkigu biderdira eta jakina diptongoen dantza ikusteko ez dugu besterik behar. Beheranzkoak, ugaritu zein monoptongatu, eta goranzkoak beste hainbeste.

Goranzko diptongoak, maileguak ez badira, arraro antzak dira euskara idatzian, baina ahozkoan besteak beste edo gehiago ez ote diren esango nuke.

Nondik dakidan horren berri?. Ba, aztertutako etno-testuetatik. Belarri hutsez ere jakin genezake baina sonogrametan argi ikusten da.

Gehiago zehaztuz, eta adibide bat hartzearrik, Zeberio haraneko etno-testuetatik diptongo berezien berri ere jaso ahal izan dut. Sarri aurkitzen dira bokale silabiko biren arteko diptongoak, eta sonogrametan ere halaxe agertzen dira, baina hertzio neurketa egin ondoren bietatik batek bokalardi edo kontsonanterdiaren funtzioa betetzen du bestea baino itxiagoa izanik.

Kontsonantismoa

Barruti honetako kasuistikan sartzeak ez luke amaierarik eukiko eta bitar-gi nagusi batzuetara mugatuko natzaizue.

Nik neuk erabiltzen dudan etno-testu transkripzioa hirukoitza da. Grabaziorikarakoa fonologia mailan egiten dut, baina, jakina, fonemen munda mugatua da eta gura eta ere, ezin jaso genitzake fonema hutsez entzuten

diren hots guztiak.

Ezintasun hau dela eta, fonetikara jo behar dugu eta hor ere kontuz! Lurralde batzuetarako gaurko alfabeto fonetikoak ere labur geratzen dira eta sonogramak ezeze, palatogramak ere atera behar izaten dira, hiztun bakoitzaren anatomia berea bakarria delako.

Fonologia eta fonetika mailen gainera literarioa iminiz gero, kontsonante bakoitzaren nondik norakoa ikus genezake, ahal den neurrian aldaketa diakronikoen berri emanez.

Adibide baten bakarrik sartuz, Zeberio haranean “-i+n” eta “i+l” bikoteak ez ditugu sabaitzen gutxitan baino, eta hori, etno-testuetako adibideen bidez ikusi ahal izan dut.

Jasotako etno-testuari deusala, norberak bizi badu aztergai duen euskara, lege orokorrak, partzialak zein kasuistikakoak lortzeko aukera ezin hobea du, baina bizi ez badu barrurikarako ebokazio gabe jokatzeko arriskua du eta labankeretan jausiko da.

Morfo-joskera

Alor zabal besteko luze honetan, hiru atal aipatuko nituzke: deklinabidea, aditza eta esaldien arteko joskera.

Deklinabide eta erakusleen munduan hizkuntza literariotik ahozkerara inon diren laburketak egin dira hiztunen berezko lege fonetikoak bitarteko izan direlarik. Hau guzti hau, etno-testuetatik atera genezake, aldaketa, frekuentzia, erabili ezak eta abar luze bat aztertzeko.

Aditzean zenbat gura eta harexenbeste fenomeno aurkituko dugu eta inon baieztatzen bada euskara idatziak ez duela jaso euskararen izate osoa, hementxe egiten da. Hitano zein berorikazko tratamentutik hasi, zukako alokutiboetara igaro eta arkaikoetararteño bidean hainbat eta hainbat erabilera bizi agertzen zaigu etno-testu luze-zabaletan. Beste alde batetik, gaur egun erderaren eraginez edo egiten diren egitura bat baino gehiagok ez daukate lekurik etno-testuetan, zergatik ez orduan begiratu gure geure oinarrietara?. Baina horretarako oinarriak ezagutu eta jaso egin behar dira. Zuhur jokatu eta eza gutzen ez dena ez dagoenik ez esan, egon dago eta.

Esaldien arteko joskerari dagokionez, beste hainbeste esan genezake eta teoria hutsean geratu ez nadin praktikara joko dizuet. Aikomenzan jaso adibideok:

Menpeko perpausa batera joko dugu Zeberio haranean eta inguruetan zelan erabiltzen den ikusteko:

Etzeko garbikusie ixu baten bat etorten bada be

Etxeko garbikuzia egizu baten bat etortzen bada be

Etzeko garbikusie ixu baten bat etorrien be

Etxeko garbikuzia egizu baten bat etorrian be

Etxeko garbikusie ixu baten bat sein etorri

Etxeko garbikuzia egizu baten bat zein etorri (+ subjuntiboa)

Hirugarren erabilera hau asko darabilgu erabili ere gure lurraldean eta inguruetan. Mitxelenak berak ere ez zuela ezagutzen esaten zidan tesiaren zuzenketetan. Ba, hor dago eta gaurko gramatiketan jazo egin behar da, besterik ez bada, herriak darabilelako distribuzio konplementarioz.

Beste erabilera batera joanik, ezezkoetara hain zuzen, gure lurraldean joera zaharrarekin jarraitzen dugu, esate baterako: *etorri esta in* (etorri ez da egin); *undiño yorratu estus in artoak* (oraindino jorratu ez doguz egin artoak); *errekaduek aistu es iteko moropile emoiona mokosapieri* (errekaduak ahaztu ez egiteko moropila emon egiona moko zapiari); etab.

Hirugarren bat aipatzeko, aikomen hemen beste erabilera zahar, jator eta eder bat:

odol malaurie dariola daukon soltzai au sek indotzen baño estona

Odol malauria dariola daukan zoltzai hau zerk egin deusain baino ez dona

Ikusiak ikusiz, ez ote dugu gramatiketara hainbeste jo beharrean euskara biziaren liburu zahar baina aberatsera gehiago begiratu behar?. Nik neuk dudarik arean be ez daukat, eta herri-euskara ezagutuago eta gutxiago oraindino.

Kontsonante multzoen ahozkerak

Berba egiten dugunean, "kanpo sandhi edo multzo foniko"en bidez egiten dugu eta era horretara kontsonanteen alkar-joteak sortzea guztiz bidezko da herri-hizkuntza biziaren ekonomia, eufonia eta artikulazio ohitura bitarteko direla.

Izan ere, ez da bat ere erraza "multzo foniko" edo osterantzeko kontsonante alkar batzuk ahozkatzea, eta horregatik herriak, berezko fonetika legeak jarraituz, erreztu egin du kontsonanteon ahozkerak.

Nik neuk jarraitu dudana bidea hau da: Ahots-moldeari dagokion sailkapena hartu eta eurentariko kontsonante bakoitza herrian erabilten diren beste kontsonante posible guztiekin alkar jotean zer gertatzen den ikusi, kasurik kasu, banan banan eta alfabetikoki, Zeberio haraneko hiztunengandik jasotako adibideak bitarteko.

Ondorioak hor dira nire neure argitaratu berri den doktoreko tesian. Horiek ondorio horiek, baliteke ezin aplikatu izatea beste lurralde batzuetan baina horrelako ikerketak, Euskal Herriaren haronakoan egingo balira, han hor hemengo bideak bateratsu ezagutu eta euskararen ahozkeran aplikatzen

hasteko aukera ezin hobea izango genuke. Ikerketa hau egin egin behar da eta ondorioak a posteriori aplikatu eta ez a priori eta sektorialki E.T.B.n eta egiten hasi diren bezala.

Lexikoa

Hona hemen beste itxaso zabal, sakon eta emankor bat. Euskal hiztegiak, hobetxoagoak edo txartxoagoak, baditugu euki ere gure eskuartean eta berriak egiten ere badabiltza, batzuk diru publiko eta guzti.

Alor honetan, aipamen berezi bat egingo nioke *Orotariko Euskal Hiztegia* hasi berriari eta horretarako K. Mitxelenarekin izandako alkarrizketa bat datorkit gogora.

Behin, Euskararen Aholku Batzordeko bilera baten, K. Mitxelenari berari esan nion:

“Zu, Koldo, hasi berri duzuen hiztegi horretan ez al duzue gogorik literatura idatziko hitzak ezeze, R.M.Azkueren estilora, laguntzaileak bitarteko, han hor hemengo euskara biziko hitzak jasoteko?”

“Bai, zu zeu ere bazauzkat zerrendan zure lurraldeko berri emateko” erantzun zidan.

K. Mitxelena joan zitzaigun eta niri ez dit inork laguntzarik eskatu, baina kontua ez da hori. Gaur egun, etno-testu edo aparteko inkesta bidez badugu euki ere hiztegi hori aberasteko aukera. Horretarako kanpo-lana egin behar da eta ondo arakatu euskalki, azpieuskalki eta aldaki guztiak, euskal hiztunok belaunaldiz belaunaldi geure galbahetik eralgitako euskal altxorra jaso ahal izateko, besterik ez bada, hiztegi bidez behintzat, “Idatz eta Mintz” bateragotzeko.

Azentu-entonazioa

Ahozkerari begirako alor garrantzizko honi, gesu baten buruz belarri heldu beharko diogu “Berridatz” horren ingurumarian “Bermintz” sortu berria nagusitu ez dadin.

Honetarako, etno-testu bidezko jasoketa behar beharrezkoa dugu, gutxieenez deskripzio lan zehatzen ondorioz, zelan ahozkatu behar den argi ikusten ez bada ere, nola egin behar ez den jakiteko behinik behin.

Hizkuntzaren ekonomiak garrantzia handia izan du, badu eta izan ere izango du eta azentua bitarteko dugu hainbat kasutan bere ezaugarri bereizle eta guzti.

Nire neure tesian jasotako azentu-deskripziotik hartuko dizkizuet bi edo hiru adibide esandakoaren argigarri legez.

Deklinabideko hainbat kasutan, azentua ezaugarri bereizlea dugu gure lurraldean singularra eta plurala bereizteko (lagunéri ≠ laguneri; lagunén ≠ lagunén; etab.).

Toponimian, azentua paroxitonoa denean, tokia bera adierazten da eta proparoxitonoa denean ostera, etxe horretako ugazaba (Zábale =baserriaren izena; Zábale = etxeako ugazaba).

Joskeran, esate baterako, lehenaldi edo subjuntiboko aditz joko nagusi bat menpeko “-n”z egiten den bategandik bereizten du azentu-posizioak: *yan dáigun* (nagusia) / *yan daigún* (menpekoa).

Orain arte esandakoa borobilduz, entzun berri duzuen guzti honekin ez diot egin besterik euskara biziaren koba-zulo sakon eta emankorrari atakako arratea kendu baino besterik. Goazen barrura gaur eguneko argigailu sofistikatu eta guzti horko barruko altxor hori kanpora atera eta etorkizunera bidera dezagun berandu baino lehen.

Gaurko nire ekintza honi eta NAZIOARTEKO DIALEKTOLOGIA BILTZARRARI bukaera emateko, hobeagorik zer BIZKAIERAREN EDERREKO Zeberio haraneko etno-testu fonologiko bat baino!

KASTREJANAKO ZUBIA (Justo Artiñano. Etsazo-Zeberio) (1977.ean, 83 urte)

Baten, Kastrejanako neskato bat Bilboko yayetara yoan i sen da gusture ibili sen antza erromerien bere lagunabarrakas.

Orduak aurrera yoakosan eta gesu beten ilundu in bear, da, lagunok bertanbera itxi eta abantean mogidu i sen Kastrejanako aldatza gora orpoetan ar barik, begiepotá bearrean eta bularrestuegas arnasea artu esin dauela.

Etze atxinerá allegau sanean gogor baño gogorrágo artu auen aitek eta miñean ar barik badiñotzo:

-Se tertzio doná au etzera etorteko, estonat argi esan orti sear seinakio on bearrean aimareatxo aurretik etzera etorri te iturrukure ekarteko? Ba uin, artuine yarroa eta yoai aguro iturrukuretan egarris tximeltan gaouxak etzeko gustiok eta!, ganera ondo irukutzine yarroa, onaskero igurdiko ur egonduegas sumikea ta ugeldarrirañoiko gustiek inde auko yosena ta!

Neskatxi orrek es i auen txitipe atera eta susi beten artu i auen iturrire bidea gustis gautu orduko iteko iturriko aronakori.

Iturrie urrintxu auken eta ganera errekas bestalde. Gaube ganera gañetu bea yakon da, estukurean estukureas badiño berekitan: "untxe etxatak etorriko parte txarrekoen bat e emetixik orraxe, iturrire, subi bet iteko?". Askopallekik seinbepaño gurágo ñaunkean orixe! Demonintrue!

Esan auena esan bauen ba se, etxako agartuten bere magal petralan

ondoan endemoniñosko kaballero bat eta esan e:

-Ser gurostena ba neskato?

-Ser gureko yoapa, subie!

*-Ba, subie gure bona ik auk e aure arimea emon beostena subie in aka-
baus batera!*

-Ba, bai,autsi arimau nor saren beist!

*Esan in ausen orrik berbok baie akordatzakoan agartuten yakos infernu-
ko fragagorri gustiok o eta berbalturañoko gustiek etorri yakosan neskato
orreri. Kontuek atera a se ixingo san, deabru koxoan batek e, koxoa ixitegai-
tik, beste gustien erremintak eta nik estait seinbet kinteleko arrie eroateuen
be.*

*A san ikustea, danak eragoioen bearren, batzuk u arriten, beste batzuk
arrilanduten eta deabru kaballeroa saldi ganeti agintan. Esaten daurie,
arriek e Gorbaieti, Dimatxetati eta orti sereti, Oisti ekarte audiesala.*

*Neskatoa, arteape ixin auen artu eta belea balzago estala ingo pentzau-
te, yaurtin yarro ori, itxi bertanbera prakagorriok eta karran yoan i sen erri-
ko abadeagana eta esan:*

*-Jaune, jaune! sabaldu beist atea, arin, berorrek baleki nondik eta setan
ñatorkon...!. Ai, amatxue!. Au da biusturiko mine!. Au bai dala edan bako
ordie!. Durdiduago sekule iñor esta on ixingo!. Ai enetxue!. Ser yostek e
orreteabru mantzin orrek!*

D'abadeak esan i otzen e:

*-Baye, baye, se jangoiko in dostesu ba feturorretan etorteko?. Aitearen da
semearen...!. Sek emon dotzun baño esta ori afruntu ori!*

*-Ba, jaune, auxe t'auxe, ta onantxik eta onantxik deabruei arimea esto-
tzepa ofresidu!. Da, beorregana nator sein arimea galdu. Beitzos nire peka-
tuok eta parkatu beistes!.*

*-Ori ingo saindun ba alabatxue, suk in dosu itekoa, estakixu ba nire
bereinkasiñoagas be naikoa estana!.*

-Se in beopa orduen ni naure arimea galdu esiteko?.

*-Ba, ara, martien ollarragas ibiliko olloan arrautzatik i martiullar batetxa-
yo beadau eta subi ori in akabau baño lenago kukurruku gedarres asten
espada sure arimeak in dau!. Pedro boteron galdaran saos esanekoa ites-
postesu.*

*Abadeak a, elexako kanpantorreko kanpaioz guztiek (g)itxi ausen, eta
Kastrejana inguruko gustiek batu i sirean ollarrori topetako. Denodu gustie-
gas eragoioen eragon be adinon oteko asti barik, baia, eginenalangoa emo-
totzien emon be apearlekuek.*

Gaube aurrera yoakien baye marti ollarori ixin topau eta binbitartean deabruak e bebisen seguru subiginen eta asken antzean ibili be, tenolik etxakien falta es!

Deabru kaballeroak, adikuna bat subieri eta beste bat inguruko ollategieri iten i otzien seguru, da, luse eretxite egoana les, inisitue bera baño soliago yoan i sen bera be berenberegi arriten Ois mendire, or serean e Durangoaldean on bea dau orrek mendi orrek, eta orra seguru, nik i ori gure sarrari entzunde, bakixu.

Abadeari be orduak luse iten yakosan arrikanpaietaraskero deabruak e podererik es aukiela bekien da, se sutxakingostesu orrik i egunes podererik estaukiena.

Beste gustieri osterara arinegi yoakien gaube ollar ori topau gurean topau gureas.

Ibili ta ibili, alangonbaten estaudie topetan martiullar ori eta galtzu susiek e suten iminite kukurruku inaso!

Neskatoak, deabruak katigituko arimea barrien barris lograu i auen da, aitu gausak selan direan e, deabruerak i ekarren subireko askenengo arrie, baye martiullar orren kukurrukua entzukan, or, Ois ondoko bastarren baten bota i auen arri endemoniño ori eta erneguan erneguas emon otzen eskukasuegas bere arrabeteko atzamar marka ta gusti itxi i auen seguru. Ak emongo yotzan emoteko sapladea!

Orrexegaitik esaten daudie Kastrejanako subie arri beten faltan lotu yakule. Aikorsan ba Kastrejanako subi orren gorabero!. Egie ala gusurre? Batepayakik!

Hau etno-testu hau zein beste edozein, ez da osagile batek anatomia ikas-teko darabilen gorpu bat bezalakoa, herri euskara bizia baino. Horregatik bizitasunean hartu behar da eta bizirik daukagun etxe zaharra bota egin beharrean zutunik dagoela berriztatu behar da eta baliagarri dena etorkizunera bideratu. Horrek irakurri dizuedan etno-testu bizi horrek edo eta beste edozein antzerakok ez ote du behar bere tokia euskararen etorkizunean?. Ni neu, gaurko jarre-
ra ikusirik ezin isildu naiteke eta Bizkaiko seme zintzo lez, hor doatzue gure irrintzi mingotsa, zein eta haxe: **BIZKAIERA BIZI DA ETA EUSKAL HERRIAK ZOR DIO BIZITZA BATASUNAREN BIDE ZABALEAN.**